


Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak % 2,1 gehitu dira 2020ko hirugarren hiruhilekoan

2020ko lehen hiru hiruhilekoen balantzean, merkataritza-jarduera % 5,7 atzeratu da

Eustatek landutako datuen arabera, 2020ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmentak % 2,1 igo dira, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, egutegiaren eraginak atera ondoren eta prezio konstanteetan. Gasolindegia kontuan hartu gabe, termino berbeteran, sektoreko salmentak % 2,6 igo dira.

2020ko bigarren hiruhilekoari dagokionez, eta dagozkion urtaro-ondorioak kenduta, 2020ko hirugarren hiruhilekoko salmenta-indizea % 19,8 igo da prezio konstanteetan, eta 2020ko bigarren hiruhilekoko % 11,5eko atzerakada gainditu du.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Sektoreka, elikagaien salmentak eta gainerako produktuak % 2,9 eta % 2,4 igo dira, hurrenez hurren; automobilgintzarako erregaia salmentak, berriz, % 4,4 egin du behera, 2019ko aldi berarekin alderatuta, eta prezioen eta egutegiaren eragina kendurik.

2020ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, urtaro-eraginik gabeko terminoetan, elikagaien salmentak % 2,5 jaitsi dira; gainerako produktuetan eta automobilgintzarako erregaian, berriz, salmentak % 48 eta % 47,9 igo dira, hurrenez hurren.

Elikagaien txikizkako merkataritzaren barruan, elikaduran, edarietan eta tabakoan espezializatutako merkataritza (fruta-dendak, harategiak, arrandegiak, etab.) % 0,8 murriztu da; elikagaiak, edariak eta tabakoa nagusi diren txikizkako merkataritza ez-espezializatua (supermerkatuak eta hipermerkatuak, batez ere), berriz, % 4,8 hazi da.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa. III/2020 (p)

	PREZIO FINKOAK		
	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	2,1	19,8	-5,7
Araba/Álava	4,3	16,0	-2,2
Bizkaia	2,3	16,6	-5,6
Gipuzkoa	0,8	27,1	-7,4
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	2,9	-2,5	4,0
Elikagaietan espezializatuta	-0,8	6,0	-3,6
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	4,8	-6,1	7,8
Beste produktuak	2,4	48,0	-12,7
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	-0,5	45,7	-13,2
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	10,1	51,2	-8,4
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	1,9	41,2	-14,7
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	-5,4	42,6	-17,5
Automoziorako erregaia	-4,4	47,9	-15,4
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	2,6	19,0	-4,9
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	-2,2	-0,1	-1,4

(p) behin-behineko datuak

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

At/A(t4) Lehen hiruhilekotik behatutako azkenekora arte metatutako aldiko urte arteko tasa (At) aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean

Iturria: Eustat.Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Gainerako produktuen txikizkako merkataritzan, prezio konstanteetan eta egutegiaren eragina zuzenduta, 2020ko hirugarren hiruhilekoko salmenten bilakaera askotarikoa izan da 2019ko hiruhileko berarekin alderatuta. Hala, etxeko ekipamenduan espezializatutako merkataritza (besteak beste, etxetresna elektrikoak, altzariak eta telekomunikazio-ekipoak) % 10,1 igo da, eta kontsumoko beste ondasun batzuetan espezializatutako txikizkako merkataritza (adibidez, liburuak, papergintzako artikulak, jostailuak eta kirol-artikuluak) % 1,9 igo da. Aitzitik, pertsonaren ekipamenduan espezializatutako merkataritza (jantziak, oinetakoak eta farmazia-produktuak, adibidez) % 0,5 jaitsi da, eta gainerako produktuetan nagusi den ez-espezializatua % 5,4 murriztu da.

Lurraldeka, 2020ko hirugarren hiruhilekoko salmenta-indizeak urte arteko igoera izan du hiru lurraldeetan: Araban % 4,3, Bizkaian % 2,3 eta Gipuzkoan % 0,8. Bigarren hiruhilekoaren aldean % 16,0, % 16,6 eta % 27,1 igo dira, hurrenez hurren.

Euskal AE osoan txikizkako merkataritzaren sektorean lanean ari direnen kopurua % 2,2 jaitsi da 2020ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko urteko bigarren hiruhilekoaren aldean. 2020ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, % 0,1 jaitsi da.

2020KO LEHEN HIRU HIRUHILEKOEN BALANTZE METATUA

Txikizkako merkataritza-jarduera % 5,7 murriztu da 2020ko lehenengo hiru hiruhilekoen balantzean Euskal AEn. Portaera desberdina izan da: Elikadurako salmentak % 5,7 igo dira, Gainerako produktueta salmentak % 12,7 jaitsi dira, eta Automobilgintzarako erregaikoak % 15,4 jaitsi dira.

Lurraldeka, Araban jaitsi dira salmentak gutxien (-% 2,2), gero Bizkaian (-% 5,6) eta, ondoren, Gipuzkoan (-% 7,4).

INFORMAZIO OHARRA

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste indize ekonomiko koiuntural batzuetan kontuan hartzen diren langile enplegatuen artean, Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedienteak (EABEE) duten pertsonak sartzen dira, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) Methodology of Short Term Business Statistics eskuliburuan jasotzen duen enplegatuen definizioari jarraituz.

Egutegiaren ondorioak zuzentzeko eta serieak urtaro-ondoriorik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik aparteko zirkunstantzia hauetan. Horiei esker, hirugarren hiruhilekoko indizea laginaren % **90,7ko estaldurarekin** kalkulatu da –laginaren informazioa urrian zehar jaso da–.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62